BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3501

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituena.

Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez (2011ko maiatzaren 31ko EHAA, 102. zenbakia), euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten zen.

Aipaturiko aginduaren 10. artikuluan xedatzen denez, Balorazio Batzorde batek prestatu eta igorriko dit diru-laguntza horiei buruzko ebazpen-proposamena, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez, batzordekideak izendatu eta batzorde horren osaera argitaratuko da.

Horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera –ondoren azaltzen dena– argitaratzea:

Lehendakaria: Miguel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

- Arturo García Fiel, Kultura Saileko kultura plangintzarako arduraduna.

- Marta Merino Ortiz de Landaluce, Kultura Saileko teknikaria, batzordeko idazkari modura jardungo duena.

- Ana Urrestarazu Etxaniz, Euskal Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria.

- Andrés Luis Fernández Seco, Gremio de Editores de Euskadi - Euskadiko Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria.

Bigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.